## SENSORY WORK AND PERCEPTION IN ACTION
**Profesionalentzako tailerra**
**Theo Clinkard (UK)**
**urriaren 5, 6 eta 7**
**10:00h-15:00h**
**Auditorioan**
**Prezioa: 35 euro**
**Izen-emateak: info@addedantza.org irailak 25a arte**

Theo Clinkard koreografo eta eszenografoak 3 eguneko tailerra proposatu du. Bere koreografia-praktikan oinarrituta, bere sormenen oinarrizko hainbat sormen-prozesuetara eta bilaketa koreografikoetara hurbilduko ditu parte-hartzaileak.

Theoren praktikaren oinarria da gorputzak komunikatzeko duen indarra eta dantzak performancean duen izaera enpatikoa. Hainbat dantza-lana sortzen ditu erregulartasunez bere 12 dantzaridun konpainiarekin, eta oraintsu bi enkargu koreografiko estreinatu ditu 'Tanztheater Wuppertal Pina Bausch' eta 'Danza Contempóranea de Cuba' konpainientzat.

ESKOLA

Tailerra bi orduko eskolarekin hasiko da egunero, non ariketa sinpleak proposatuko diren gorputzaren kontzientzia eta pertzepzio-jolasak garatzeko, parte-hartzaileen eta horien eta espazio horren arteko harremana aztertuko dutenak.

Eskola diseinatu da dantzarien koordinazioa suspertzeko eta haiei mugimenduaren artikulazioan garbitasun handiagoa bilatzen laguntzeko, mugimendu inprobisatua eta mugimendu idatzia konbinatuz. Eskola mugimendu-esaldien lan batekin amaituko da, ikuspuntu ludiko, presente eta hedakor baten bidez.

TAILERRA

Eskola ondoren, Theok 3 orduko saio bat gidatuko du, non parte-hartzaileak gonbidatuko dituen beren bilaketa koreografikoaren inguruko ideiaren bat martxan jartzera, edo horien gaineko hausnarketa egitera edo hitz egitera.

Theoren sormenek narrazio edo biografia esplizituak saihesten dute; gainera, ekintza gauzatzen ari den 'pertsona' azaleratzeko interesa dute. Bere tailerren helburua da hainbat tresna eskaintzea, parte-hartzaileek fisikoki eta modu bizian parte hartzen ari diren unea bizi eta azaleratu ahal dezaten, eta aldi berean, behatuak izateko eskuragarri izan daitezen.



Hainbat esplorazio- eta sormen-jarraibide erabiliko dira, besteak beste, ukimena eta ikusmena, mugimenduaren kontzientzia fisikoa eta presentzia bizia zabaltzen laguntzeko, eta binaka edo taldeka lan egingo da.

Ideia eta teknika unibertsal horien helburua da parte-hartzaileen praktikak aberastea, izan interpreteak, sortzaileak edo pedagogoak.

BIOGRAFIA

20 urtetan Erresuma Batuko koreografo nabarmenekin interprete gisa lan egin ondoren, Theo Clinkardek, egoitza Brightonen (EBn) duenak, bere praktika koreografikoa zein eszenografia-lanak garatu ditu. Bere sormenen bidez –sormen harrigarri eta bisualki izugarri gisa deskribatzen direnak–, bere lanak nazio eta nazioarte mailako aintzatespena lortu du.

2012an bere konpainia propioa sortu zuen, eta harrez geroztik, etengabeko birak egin ditu bere lanekin bai Erresuma Batuan bertan, bai nazioarte mailan (Txile, Suitza, Alemania), non harrera oso ona jaso zuen kritikaren aldetik.

Gainera, bere lana British Dance Edition (Edinburgo eta Cardiff) ekitaldi entzutetsuan eta Dusseldorfeko International Tanzmesse NRW 2016 ekitaldian aurkezteko gonbidapena jaso du.

Bere aurreko sormenak honako hauek dira, besteak beste: *Hell Bent* (2012), *Ordinary Courage* (2012), *Of Land & Tongue* (2014) eta *Chalk* (2014), *This Bright Field* (2017). Azkeneko lan horretan nazioarte mailako 12 dantzarik parte hartzen dute, oraintsu, joan den maiatzean, estreinatu da Brighton Festival jaialdian, eta egun biran ari dira.

Era berean, Theok, nazioarteko erakunde entzutetsuentzako hainbat enkargu koreografiko egin ditu, hala nola Tanztheatre Wuppertal Pina Bausch erakundearentzat, *Somewhat still when seen from above* (2015) lanarekin. Lan hori konpainiak eskaini zuen lehen programaren barruan aurkeztu zen, koreografo legendarioa 2009an hil ondoren. Era berean, *The Listening Room* (2016) sortu zuen Danza Contemporánea de Cuba erakundearentzat, eta lan horrekin biran ibili da Erresuma Batuan 2017ko udaberrian.

Gaur arte, 24 lan estreinatu ditu, eta horietako asko dantzan trebatzeko goi mailako erakundeentzako zein Ingalaterra, Austria, Txile, Irlanda, Gales eta Zeelanda Berriko konpainia gazteentzako sormenak izan dira.

Clinkard Brighton Dome, Dance4 eta Greenwich Dance erakundeekin lotutako artista bat da.

www.theoclinkard.com

## SENSORY WORK AND PERCEPTION IN ACTION

**Taller para profesionales**
**Theo Clinkard (UK)**
**5, 6 y 7 de octubre**
**10:00h-15:00h**
**Auditorio**
**Precio: 35 euros**
**Inscripciones: info@addedantza.org**
**hasta el 25 de septiembre**

El coreógrafo y escenógrafo, Theo Clinkard, propone un taller de 3 días basado en su práctica coreográfica acercando a los/las participantes a varios de los procesos creativos y búsquedas coreográficas que han sido la base de sus creaciones.

La práctica de Theo se centra en el potencial comunicativo del cuerpo y en la naturaleza empática de la danza durante la performance. Crea regularmente piezas con su compañía de 12 bailarines y recientemente ha estrenado dos encargos coreográficos para 'Tanztheater Wuppertal Pina Bausch' y 'Danza Contempóranea de Cuba'.



### LA CLASE

Cada día comenzará con una clase de dos horas donde se propondrán ejercicios simples para desarrollar la conciencia en el cuerpo y juegos de percepción que explorarán la relación entre los/las participantes y entre éstos y el espacio que habitan.

La clase está diseñada para estimular la coordinación de los bailarines y ayudar a que encuentren una mayor claridad en la articulación del movimiento, combinando movimiento improvisado y movimiento escrito. La clase terminará con un trabajo de frases de movimiento desde un enfoque lúdico, presente y expansivo.

### EL TALLER

Tras la clase, Theo guiará una sesión de 3 horas donde se invitará a los/las participantes a poner en acción, observar y conversar sobre alguna de las ideas que giran en torno la su búsqueda coreográfica.

Las creaciones de Theo evitan lo narrativo o biográfico explícito, además se interesa por revelar a la 'persona' que está haciendo la acción. Sus talleres buscan ofrecer herramientas que permitan a los participantes vivir el momento en el que están involucrados física e intensamente y, al mismo tiempo estar disponibles para ser observados.

Se utilizarán pautas de exploración y creativas que implicarán el tacto y la vista para estimular una ampliación de la conciencia física y la presencia viva en el movimiento, trabajando en dúos y grupos.

Estas ideas y técnicas universales están dirigidas a enriquecer las prácticas de los/las participantes sean intérpretes, creadores o pedagogos.

### BIOGRAFÍA

Tras 20 años trabajando como intérprete con coreógrafos destacados del Reino Unido, Theo Clinkard, basado en Brighton (UK), desarrolla su práctica coreográfica así como la de escenógrafo. A través de sus creaciones, descritas como creaciones impactantes y visualmente arrolladoras, su trabajo ha adquirido un reconocimiento nacional e internacional.

En 2012, fundó su propia compañía y, desde entonces ha girado sus trabajos intensamente dentro del Reino Unido y a nivel internacional (Chile, Suiza, Alemania), con muy buena acogida por parte de la crítica.

Además, ha sido invitado a presentar su trabajo en la prestigiosa British Dance Edition (Edinburgo y Cardiff) y en International Tanzmesse NRW 2016 de Dusseldorf.

Sus anteriores creaciones incluyen *Hell Bent* (2012), *Ordinary Courage* (2012), *Of Land & Tongue* (2014) y *Chalk* (2014), *This Bright Field* (2017). Este último trabajo incluye a 12 bailarines internacionales y se ha estrenado recientemente en Brighton Festival el pasado mayo, actualmente está de gira.

Asimismo, Theo, ha realizado encargos coreográficos para estructuras internacionales de prestigio como Tanztheatre Wuppertal Pina Bausch con la creación de *Somewhat still when seen from above* (2015). Esta pieza se presentó dentro del primer programa ofrecido por la compañía, después de la muerte de la legendaria coreógrafa en 2009. También creó *The Listening Room* (2016) para Danza Contemporánea de Cuba, pieza que ha estado de gira por el Reino Unido en la primavera de 2017.

Hasta hoy, ha estrenado 24 obras, muchas de las cuales han sido creaciones para instituciones superiores de formación en danza y para jóvenes compañías de Inglaterra, Austria, Chile, Irlanda, Gales y Nueva Zelanda.

Clinkard, es un artista asociado a Brighton Dome, Dance4 y Greenwich Dance.

www.theoclinkard.com